

AIETEKO MEZU SEKRETUAREN BILA

Kaixo laguna!

Karmen Urrestarazu naiz, Melodi baserri zaharreko bosgarren belaunaldia.

Aiete parkea ezagutzera gonbidatu nahi zaituztet. Gure baserria aspaldi desagertu zen arren, familiako kide gehienak Aieten bizitzen jarraitzen dugu eta gure familia auzo honen aldaketen lekuko izan da.

Maritxu gure birramonak kontatzen zuenez, Aiete, Donostiako hiri kaskarinetik urrun zegoen baserriar auzoa zen, eta bertako baserriar gehienak bezala, astean behin astoan jaisten zen baratzeako produktuak Bretxako merkatuan saltzera.

Denborarekin, baserri eta sagarrondoak betetako eremua izatetik, duke-dukesen udako bizileku dotore izatera pasa zen Aiete, pentsa, Isabel II. eta Victoria Eugenia erreginak jauregi honetan pasa zituzten udako oporraldi batzuk!! Gero, Franco diktadoreak ere hainbat hamarkadatan udak hemen eman zituen.


Orain auzo eder eta lasaia da. Eta niretzat behintzat, oso kuttuna!

Aiete parkea hobeto ezagutu eta auzoaren historiari buruz gehiago jakiteko, hurrengo jarraibideak segi mezu sekretura iritsi arte.

Zorte on!



4 Jauregia zure bizkarrean utzi eta ezkerreko bidea hartu. Ikusten al dituzu farola zuriak zure eskuinean? Ba segi aurrera bost pasatu arte. Putzura iritsi al zara?



4 Putzu bazterrean aurkitzen den zuhaitzik altuena Ginkgo bat da. Oso zuhaitz mota berezia da, dinosauroekin batera bizi izan baitzen, eta zenbait gaitz sendatzeko erabiltzen da. Topatu duzu? Bere hostoen forma bereziak emango dizue hurrengo pista. Beroa egiten duenean haizea eragiteko erabiltzen duzun tresna gogorarazten al dizu?

6 Segi haiztuloa zeharkatzen duen bidean aurrera zuhaitz erraldoi batekin topo egin arte. Topatu al duzu azala gorrixka duen Sekuoia?

6 Ipar Amerikatik datorren zuhaitz erraldoi honek oso azal berezia du, suteetatik babesten duena. Ezaugarri hau dela eta, ba al dakizu noren jantziak egiteko erabiltzen den?

8 Erreparatu al diozu jauregi ondoan dagoen dorreari? Segi bertara, hurrengo pista topatzeko gertutik begiratu beharko diozu eta. Eraikin hau Ipuinen Dorrea da, garai batean ur-biltegi handi bat zegoen bertan.



8 Zerutik begiratu bagenio, nolakoa izango zen dorre altuenaren forma?

9 Jauregi aurreko putzuraino gerturatu zaitetz, jolasean aurrera egiteko.


9 Beltxargak hemen lasai eta gustura bizi dira, baina etxea bizkarrean daraman animaliarik nahi al dute bizilagun gisa? Ideia ona al da beste herrialdeetatik datozen animaliak, adibidez maskotak, naturan libre uztea?

BAI **EZ**



1 Has gaitezen... kultur etxetik irten eta parean aurkituko dituzun izarrei jarraitu, parkeko izarrik altuena topatu arte. Ondo begiratu, kultur etxe gainean ere badaude eta!

1 Hemendik itsasoaldera begiratzuz, erraz imajinatu daiteke Aiete aspaldi Donostia kanpoaldeko mendixka bat zela. Horregatik, leku estrategikoa izan zen gudu desberdinetan. Nola deitzen zaio ingurune zabala begiztatu eta zaintzeko erabiltzen den goragune edo gainari? Animalia hauen izenen lehen letrarekin aurkituko duzu erantzuna.



2 Hurrengo pista lortzeko gerturatu parkeko ate nagusira. Sarreraguztietatik nagusia zein den ba al dakizu? Ondoan atezain edo guardaren etxea duena!



2 Zure aurretik pasatzen den errepideak, garai batean Aiete osoa zeharkatzen zuen, eta Donostia inguruko herriein lotzen zuen biderik garrantzitsuenaren zen. Ba al dakizue nola zuen izena?

G K O G I T Z D



3 Hurrengo pista parkeko txakurrek emango dizute. Baina ez edozein txakurrek... inoiz mugitzen ez diren batzuk. Segi bertara!

3 Zure aurrean duzun jauregi dotore honetan duke-dukesa, konde-kondesa bizi izan dira eta errege - erreginek bisitatu dute. Urteekin udalaren esku geratu zen, eta 2010. urtetik Bakearen Etxea dago bertan. Donostiako Nazioarteko Bake Konferentziaren egoitza izan zen, eta gaur egun giza eskubideekin lotutako hainbat udal sail aurkitzen dira hemen. Jarraitu labirintoa jauregia eraikitzea erabaki zuen familiaren abizena topatzeko.



5 Ezagutzen al duzu Aiete parkeko haiztuloa? Zoaz bertaraino hurrengo erronkaren bila.

5 Haiztulo hau ez da benetakoa, Bailén-eko duke eta dukesa hemen bizi zirenean eraiki zuten, garai hartan naturako elementuak imitatzea eta lorategi eder eta dotoreak izatea modan baitzegoen. Gora begiratzan baduzu, benetako haiztuloek bezala hemen ere harritzko hatz edo orratz formako harriak daudela ikusiko duzu... nola dute izena egitura hauek?



7 Bidetik segitzen baduzu, bi eraikin gorri topatuko dituzu. Garai batean dukeen usategia eta zalditegia izandakoak. Gaur egun Klub Bonsai Kultur Elkartearen egoitza eta Topalekua dira.

7 Ikusi al duzu enbor zuri-zuria duen zuhaitza? Ba al dakizu nola duen izena Euskal Herriko mendietan aurkitzen dugun zuhaitz honek?

HARITZA URKIA
LIZARRA PAGO

10 Amaitzen ari zara! Aieteko parkean dagoen beste beltxarga zuri eder batengana joan beharko duzu mezua ondo argitu ote duzun ikustera. Baina adi! Ez da hezur eta haragizko beltxarga... Ba al dakizu non dagoen? Bertara joan beharko duzu Karmenen mezu sekretua ondo osatu duzun galdetzerara.



